

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Urriak 5, 79. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



JUAN ANTONIO URBELTZ,
Dantza munduaz
kutsatutako gizona

**IRRATIZALEAK
EDO UHINAK
LAGUN**

Joseba



**A R R A S A T E
K I R O L A K**

Kontzeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

ONGI ETORRI ARRASATERA!



CANAL+



Arrasate Telebistak ongi etorriker beroena ematen die Mondragoeko etxeetan laster ikusi ahal izango diren telebista pribatuei eta aurrerantzean satelitez edo bestela etorriker direnei. ATBn ez dugu monopolioetan sinesten eta nazioartetik hizkuntza desberdinetan ailegatuko zaigun eskaintza oparoa begi onez ikusten dugu.

Baina Arrasatek bere telebista behar du, mondragoetarrak ondo jantzita egon daitezen herriko gorabeheraz. Gainontzeko telebistek, ikaragarri aberatsak izan arren, ezingo dute behar hori bete.

Horretarako gaude gu, Arrasate Telebista, zugandik hurbilen, egunez egun, zu zeu zeure herriko berrien protagonista egiten zaituena.

Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa duzu Arrasate Telebista, zeure herriko telebista. Badakizu non gauden: 22. kanalean.



Zugandik hurbilena

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martín Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitakoan.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Teoriari beldur

Teoriak ezinbestekoak baldin baditugu ere, jeneralean praktikan dugu gizakiok fedea ipintzen. Hitzak haizeak omen daramatzalarik, obrek neurtzen dute bakoitzaren balioa. Betiko mitoetatik gaurko zientziarik aurrerakoienera igaro bagara, teoriaren gainean ekintzaren hazia erein dugulako da. Mitoak teoria hutsa izanik, ezina dute berezko garapena teknikaren laguntzarik gabe.

Europako Ekonomi Elkartea (EEE)ren babespean hilerok argitaratzen den boletin batean, Peter M. Schmidhuber kidearen eritziak irakur daitezke, "Lurraldetasun eta federalismoa, Elkartearen integrakuntzarako prozesuan" titulupean. Eraiki nahi omen den mugarik gabeko Europari buruz aukeztutako teorian, ohizko aldarrikapen eta diskurtsu etereoetatik aldegiten duen baieztapena badago. Eta horixe da, hain zuzen ere, aurreko lerroaldiaz bat egiten duena.

Schmidhuber jaunak federalismoaren aldeko nahia agertzen du, Europa formula politiko horretatik oraindik urruti xamar dagoela aitortzen badu ere. Hamabietako Elkartek oraingo estatu-planteamendu estuaren baldintzak apurtu egin beharko litzukeela dio Schmidhuberek, lurraldetasunari garrantzia emateko. Beste datu eta irazkinen artean, Europako Elkartea ehun eta hirurogei estatu federatuk osatu beharko luketela adierazten du, zenbaki hori nondik eta nola atera duen argitzen ez duelarik.

"Guztiontzako kafea"ren teoria datorkit gogora horrelako gauzak irakurtzean. Eta baita espainiar estatuak teoria horren gainean eraiki duen praktika salagarria. Gure politikoen ezpainetatik sarri entzuna dugun "Nazioetako Europa" hori, Schmidhuberek erreibindikatzen duena ez ote den izango galdetzen diot nire buruari. Eta, aitortu behar dut, erantzuna noiz eta nola iritsiko zaidan geratzen naiz... zeharo izututa.

Jose Mari Velez de Mendizabal

inpresio ona

IK3

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialia
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

AURRERATZEKO



AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

PESAren zerbitzu astuna!

Gasteizera, Bilbora nahiz Arrasatek inguruko herrietara joateko autobusa hartu beharraren zoritxarra duen horietakoa naiz. Zoritxarra diot, izan ere, berandu datorrelako ez denean, kobradoreak edo takilako txartel salgaileak purrustadaka tratatzen gaituelako, inoiz ere ez naiz gustora egon zerbitzuarekin. Esan beharrik ere ez zenbat denbora galdu dudana, autobus horien zain, edo barruan sartuta herriz-herri eta geltoki guztietan geratuz.

Egia esanda, bidaiariekin nahi duena egiten du. PESAk, monopolioa izatean ematen dizkiola pentsatzen duen uzteko "eskubidea" erabiliaz. Bilborako ikasle gaixok maleta artean saltoka pasa behar izaten dute autobuseko pasiloa, Aretxabaletan urbanoaren zain dagoena bertan geratuko da deskuidatuz gero. Aste honetan bertan, eguadiako ordubietako urbanoaren zain 16 lagun geunden, eta ordulauden beranduago, Gasteiztik zetorrena pasa eta bertan utzi gintuen, 'Bergara bakarrik' esanda. Azkenean, ordu erdi itxaron behar. Lanerako presa izan, sendagilearenean ordua, berdina zaio!. Ez iristeko arriskuan zaude beti.

Familia ugariaren titulua erabiliaz deskontuaren 'abantaila' ren eskubidea duenak, berriz, erruki! Makina bat aurpegi txar eta tripa-erre aguantatu behar du.

Aurrerapena eta garraio onaren izenean ari zaretenok: errespeto gehiago bidaiariarentzat eta seriotasun apur bat. Ez da asko eskatzea.

M.A.L.


Paper birziklatua

Asko hitzegiten da paper birziklatuari buruz azkenaldian. "Erabili eta bota" pentsamoldea nagusi den gizarte honetan, harriztekoa baina pozgarria da; etxean sobra daukagun papera zaborretara besterik gabe bota beharrean, bazter batean pilatzen hastea bururatu zitzaigun: apunte zaharrak, aldizkari eta egunkariak etab., eta baita pila galanta egin ere.

Baina orain arazo baten aurrean aurkitzen gara: entzuna dugu gure bailadan nonbaiten biltzen dutela erabilitako papera, ez dakigu non, ordea. Eta etxean traban daukagu kaxa handi bat bete.

Eskertuko genuke gai horri buruzko informazioa, bide batez, dei bat egingo genizuke guztioi, erabilitako papera birziklatzeko bideak jar dezazuen, eta Arrasate Press bezelako aldizkari paper birziklatua erabil dezaten.

L.G.A.



Zer da zuretzat Maritxu Kajoi?




Montxi Jauregi
(etxeakoandrea)

Niretzat lehen orain baino jai politagoa zen. Orain izaten da, gazteak tabernara joan, tabernatik etorri,...,lehen politagoa zen.



Nerea Artola
(ikaslea)

Herriko askorentzat edateko jai da, baina nik uste dut herriko beste jai bat dela, ondo pasatzeko egun bat. Beste jaietan ere edaten da, baina jendeak pentsatzen du Maritxun gehiago edan behar dela.



Xespi Bergaretxe
(langilea)

Lehenagoko ohitura zahar bat dela esango nuke, galduta egon dena eta orain berriz indarra hartzen dagoena. Tabernarientzat eta ondo etortzen da hori, besteentzat ere bai.




Adolfo Aguado
(igeltseroa)

Izugarritzko juerga, ez dakit nola esan. Ondo pasatzeaz gain demaseko juerga, egun batekoagatik. Besteek berdin pentsatuko dutela uste dut.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA



BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

Memesa

79 42 22

URKIDEL

DELINEAZIOA

Basabe poliganoa B-0

ARETXABALETA Tfnoa: 77 03 61

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak

Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82

ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEA

Arrasateko Eskualde-Ospit.....	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua.....	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak.....	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea.....	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua).....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero).....	79 05 81
Gasa.....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza.....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza.....	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte.....	79 87 77
---	----------



5 OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "Razas de noche", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Mira quien habla", 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

6 LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "La caza del octubre rojo", 5, 7.30, eta 10.30etan.
- Novedades. "Mira quien habla", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Oñati jaletan: Goizeko 10etan ganadu, fruta, barazki, gazta, eta ardi lehiaketa.
- Eguerdiko 12.30etan aurreku lehiaketa.
- Gaueko 10etatik aurrera gaur-pasa.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

7 IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "La caza del octubre rojo", 5, 7.30, eta 10.30etan
- Novedades. "Mira quien habla", 5, 7.30, eta 10.30etan.
- Oñati jaletan: Eguerdiko ordubetetan bandaren kontzertua. Gaueko 11etan dantzaldia *Inguma* taldearekin.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres..

8 ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "La caza del octubre rojo", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Mira quien habla", 7.30etan.
- Oñati jaletan: Eguerdiko 12etan kuadrilen arteko lehiaketak.
- Gauean dantzaldia Egan-ekin
- Monterronen arratsaldeko 7etan hitzaldia "Erresistenzia indigena eta popularra-

- ren 500 urte" izenburupean.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerias.

9 ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "La caza del octubre rojo", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

10 ASTEAZKENA

• • •

- "Mastektomia: bularretako minbiziaren prebentzioa" izenburupean hitzaldia AEDn arratsaldeko 4etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

11 OSTEGUNA

• • •

- Zinea: Amaian "Tampopo" filmea 8.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

Kirol Agenda

FUTBITOA

• • •

- Zaldibarko txapelketaren hasiera, larunbat goizean hasi eta asteburu guztian zehar 30 partidu jokatu dira.

ESKUBALOIA

• • •

- Larunbatean polikiroldegian arratsaldeko 6etatik aurrera Arrasate Kirolak eta Urduiz taldeen arteko partidua, bigarren mailako partidua alegia.

FUTBOLA

• • •

- Igandean Atxabalpeko futbol zelaietan Mondra eta Irungo Real Unionen arteko partidua.

PILOTA

• • •

- Larunbatean Oñatiko Zubikoa polikiroldegian San Miguel txapelketako azken partidua, gaueko 10.30etatik aurrera.

HERRI KIROLAK

• • •

- Larunbatean arratsaldeko 5.30etatik aurrera Oñatiko plazan.

Mendia

• Zubirako irteera

Besaide Mendizale Elkar-teak irteera bat antolatu du urriaren 12, 13 eta 14.rako. Zuberoa eta Belagua ezagutzera joateko. Lehengo egunean Maule eta Kakuetak sakonak bisitatuko dira.

Bigarren egunean mendi irteera egingo da Holtzartetik Barazea eta Lakartzela gaudituz Belaguaraino. Hango aterpean lo eginaz. Irteera 12an izango da, goizeko 8etan Gari-baiko geltokitik.

Bidaiaren prezioa: 3.000 pta. bazkideentzat.



3.500 ez bazkideentzat.

2.500 gazteak.

Izena emateko: Urriak 8, 9 eta 10ean Besaideko egoitzan 7etatik 8.30etara.

Lehiaketak

• Bergarako Pol-Pol Mendizale Taldeak herriko argazkizaleentzat diapositiba lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko epea datorren astelehenean hilak 8 amaituko da. Gaia librea da, baina "naturan bizi" gaiaren inguruko diapositiba onenarentzat sari berezia izango da, eta datorren urteko egutegian irtezeko aukera izango du. Epaimahaia, argazkilariek eurek osatuko dute, agerian puntuzioa emanez, urriaren 10ean egingo duten diapositiba emaldian zehar.



Aldizkariak

"JAKINGARRIAK"

Hauxe da geure artean argitaratzen den aldizkariik beteranoena: lau urte daramatza. Hasieran fotokopia bidez zabaltzen zen. Azken aldian, oster, aldizkari formatoan.

Ez da informazio orokorreko aldizkaria, Pedagogia du helburu, 0 eta 7 urte artekoen eskola-esperientziak. Eskolatzako Irakasle Eskolako Dokumentazio Zentruak argitaratzen du, urtean lau aldiz. 2.000 ale banatzen dituzte doan, Euskal herriko ikastetxe guztietara.

Berri bibliografikoekin hasi ohi dira, liburu berriak, itzulpenak eta aldizkari interesgarrien berri emanez. Zerbaki bakoitzean gai monografikoa lantzen dute, 16. alean adibidez, *Prentsa eta Irratia Eskolan*. Amaitzeko, eskoletako esperientziak biltzen saiatzen da. Dena euskaraz idatzi-ta.

Liburutegiak

• Monterrongo liburu berriak

Gure herriko liburutegira honako liburu berri hauek etorri dituzte joan den irailean, orain arte daudenez gain sail ezberdinak aberasteko:

• Hijuelos, Oscar: Los reyes del Manbo tocan canciones de amor (nobela). 1990ko Pulitzer saria.

• Calvino, Italo: Si una noche de invierno un viajero...(nobela)

• Bowles, Jane: Placeres sencillos (narrazioak).

• Rivas, Manuel: Un millón de vacas (ipuinak, poemak). 1990ko kritikaren saria.

• Rhys, Jean: Viaje a la oscuridad (nobela).

Ancho mar de los Sargazos (nobela).

• Leguineche, Manuel: La primavera del Este (saioa).

• Rico-Godoy, Carmen: Cómo ser una mujer y no morir en el intento.

• Toussaint, Jean Philippe: Monsieur (nobela).

• Iriberry, Jon (Gerardo Markuleta): Larrosak, noizean behin (poesia).

• Aldekoa/Aristi: Taberna zuloakoak (ipuinak).

Liburuak

• Bergara Turistikoa

Bergarako Udalak libuska batzuk kaleratu ditu, herriko eta inguruko auzoetako gune turistikokoak ezagutzera emateko. Poltsikorako moduko edizioa da, lau liburuskak osatua eta denak biltzen dituen azal berezi batekin. *Monumentu historikoak*, *Auzoak I eta II* eta *Ibilaldi Turistikoa* dira bakoitzaren izenburua. Azalean eta barruan, argazkiak, planu-gidak, etxe ezberdinetako izkutuen irudiak, guztia koloretan eta neurri txikian.



Akanpada

• Kilometroak 90eko antolatzaileek hiru egun kanpindandan pasatzeko prodosamena egiten dizue, egunean bertan joan beharrean besperakoak ere harrapatzeko. Ostiral arratsaldeko 5.30etan irekiko da denda jartzeko lekua, eta gonbidapen berezia egiten diete gazteei Ostiral eta Larunbatean Zarama eta Akelarren emanaldietara etor daitezzen. Animatu!



“.....
Begibistakoa da kooperatiba handi batean ezin direla erabakiak txikian bezala hartu, baina posible da baliapideak jartzea bazkideek elkartearen norabidearen kontrola izan dezaten. Egia da hartu beharreko erabakiak gero eta garrantzitsuagoak direla, baina agintariak badituzte bideak euren ekintzen berri bazkideei emateko. Ez da erraza gai honi konponbidea ematea eta arazo potentziala izan daiteke.

(Bruce Thordarson-ek, Nazioarteko Koopertiba Batasunaren zuzendariak Deia egunkarian)

“.....
Espainiako kooperatibismoa oso garapen gutxikotzat dauka, egitura interkooperatibo eza eta pertsonalismo gehiegia dela eta. Inbercoop-eko partaideak proposatu bezala Katalunian ekintza markua ezartzea ‘inperialismoan’ erortzea dela uste du. Ideia hori zehaztuz jakin erazi zuen, Lan Kide Aurrezkiak hitu arrazoiengatik egiten diola uko Espainian zehar hedatzeari; bokazio, solaskide eta dimentsiorik ezagatik alegia”.

(Iñaki Gorroñok El Correo egunkarian)

“.....
Poteolari bakartiaren gorazarrean, nere gurasoen herria den Oñatin, adibidez, ezin duzu bakarrik ibili tabernan txurrutan, eta horren defentsa egin nahi dut”.

(Gerardo Markuleta idazleak, Argia astekarian)

Egin daiteke publizitatea Europa eta Euskalerrira begira?

Uste dugu publizitatearen azken helburua saltzea dela.

Publizitatea enpresako saltzaile garrantzizkoena da. Publizitate onaren bitartez lortutako kontaktuak, erosketa prozesua norberaren markara darama.

Komunikazio munduan urte batzuk daramatzagunok ongi dakigu saltzen ez duen iragarkiak jai duela. Horregatik gehienotan aurkeztu ere ez da egiten, nahiz eta oso polita eta atsegina izan.

Produktu gehienak antzerakoak direnean, kalitate kontrolak zorrotzak eta zerbitzu-prezio binomioa parekoa, bereizten dituen ezaugarria irudia da.

Hemengo enpresa askorentzat merkatua Europa da. Zenbait produktu European ondo koka daitezke publizitatearen bitartez, hemendik bertatik eginiko eta zuzendutako ekintzak bideratuz. Publizitatea Europako merkatu globalarentzat planteatzen da, hizkuntza desberdinetan, baina kodigo berdintsuetan erantzuten duelako publiku helburuak.

Gure lurralde barrura begiratuaz Europarako baliagarria den publizitatearen antzerakoa egingo da. Euskaraz egitea, enpresa bakoitzaren planteaketarako interesgarria bada egingo da soilik. Hemengo enpresak garbi du European saltzeko bere imagina ezagutzera eman behar duela, eta publizitate bera erabiliko du han eta hemen.

Sakoneko arazoa enpresa edo marka gehienentzat zera da, 0,6 milioi garelako euskaldunak 300 milioiko merkatuan, gainera erdararen bat ezagutzen dugula eta erdal publizitatearen estimulari ongi egokitu. Beraz erantzuna euskaradun publikoan dago.

Iñaki Azkoaga,
AZK taldeko zuzendaria

SANIDES

Parasitoei aurre egiteko
Insektu narraztiak akabatzeko,
aratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Zunbeltz

Simon Arrieta Enparantza 2,
BERGARA

Oñati

Oñatin jaieri jarraipena emango diete asteburuan eta izango da zer ikusi ugari Aloñazpiko herrian. Lerro hauetan jai egitarau osoaren berri ematea luzeegi litzatekeela eta, banaka batzuk besterik ezin aipatu. Larunbat goizean baserri giroa nagusituko da Oñatin gaudu, barazki, gazta, fruta, eta ardi lehiaketarekin.

Eguerdiko 12.30etan auresku lehiaketari hasiera emango zaio. Bazkari herrikoia izango da ondoren. Gelditzen den egunaren zatia herri kirol, dantzaldi, pilota partidu, eta gaupasarekin osatuko da.

Igandean berriz, sokamuturra izango da goizeko zazpitan, udal musika bandaren kontzertua eguerdi aldera eta *Ingumarekin* dantzaldia azkenik.

Jaien bukaera astelehenean, kuadrillen egunean hain zuzen. Sokamuturrak, kuadrilen arteko lehiaketak, "*Incansables*" taldearen kalejirak, eta *Egan* taldeak emango die bukaera aurtengoz San Miguel jaiiei.



Aretxabaleta

• Larunbatean Aretxabaletan izan zen **Antzinako ezkontza**, arrakasta handiz burutu zen. Ondorengo afarian 160 lagun giro paregabean. Gainera, Durana kalea horrelakoetarako erabat toki egokia dela frogaturik geratu da hurrengorako.

• Ostiraleko *Rock jaialdia*k gustora utzi zituen hurbildutako guztiak, eta antolatzaileen aldetik, zorianak taldeen inguruan ibili ziren gazteei, ondoren garbitzen egin zuten lanarengatik.

• Haurren egunean, etxeetako harrerak jarri zuen puntu beltza, izan ere oso familia gutxik hartu bait zuten umeren bat etxean eta azkenean 70 ume tabernetan banatu behar izan zituen *Alkarrek*.

Bergara

Bergarako udaleko emakumearen zerbitzuak datoren astelehenean hasiko diren hainbat ekintza anto-

latu ditu. Astelehenean hasi eta aste guztian zehar nahi duten emakumeek eskulak lantzeko aukera izango

dute, 1.000 pta. ordaindu ezkerro eta aipatutako zerbitzuan izena ematen badute.

Diru kopuru bera ordaindu beharko dute astelehen eta asteazkenean masaia sesioetan parte hartzekotan direnak. Asteartean berriz sukaldaritza eta elikadurari buruzko saioak ere izango dira.

Aipatutako ekintzakin asteleheneko eztabaida taldeak hasiko dira arratsaldeko 4.30etan kultur etxean, 30 emakumek parte hartu ahal izango dutelarik. Esandakoaz aparte, gogoratu beharra dago emakumearen zerbitzuak 3 hilabetero aldizkari bat ateratzen duela eta dagoeneko kalean dagoela atera duten azkena.



Nutrisan-Arrasate Zentru Medikua

- Nutrizio eta dietetikako espezialitatea.
- Mesoterapia estetikaren tratamenduan.
- Kirurgia estetikoa eta plastikoa.
- Elektroeskultura-gimnasia pasiboko mahaia.
- RIA laborategia: analisi klinikoak eta alergiak, Lagun Aro eta beste batzuk.

Ordutegia: goizeko 8etatik arratsaldeko 8etara
(aurrez ordua eskatu).

Kale-Aldea 11 etxabehea, Tfnoa: 79 65 78 ARRASATE

PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

ORTZI erretegia

Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68 BERGARA



Irudi hau ez da aurten errepikatuko

Azkenean, liburu azokarik ez

Arazo teknikoa ofizialki, diru arazoa azpian

Urriaren 9ak 14ra ez da Arrasaten Liburu azokarik izango, arazo teknikoa direla medio. Aurtengorako 11 erakuslek bakarrik eman zutela izena, (iaz 18 ziren) eta Jaurlaritzatik dirulaguntza murriztu zietela eta, 200.000 pta. eskatu zioten Udalari, kartelak

ateratzea eta inguruko animazio ekin-tzak bere gain hartzeaz aparte. Udalak ez zuen kopuru hori ordaintzerik onartu, eta ez datoz. Erruak erdibana, baina penagarria benetan, orain arte oso plaza garantzitsua izan da eta Arrasate, orain bi urte 3 milio pta. atereaz.

Indemnizazioak

Finantza eta Ekonomi Ministeritzak gerra garaian espetxean egondako soldaduei kalteordain gisa dirulaguntzak eskaintzen dizkie. Laguntza horiek tramitatzeko, Arrasateko Udaleko Gizarte Ongizate Sailera jo behar da.

Nafarroa oinez

Urriaren 14an Lizarran ospatuko den Nafarroa Oinezarako autobusak antolatu ditu AEDk. Irteera goizeko 9etan izango da Garibai Plazatik. Izena eman nahi duenak AEDn bertan, Hire liburudendan eta Iturriotz tabernan egin behar, urriak 12 arratsaldeko 6ak aurretik eta bidaiaren prezioa 600 pezetakoa izango da.

Telebista Pribatuak

Retevision Erakunde Publikoak Murugainen emisora jartzeko egindako eskariari ezetza eman dio oraingoz Udaleko Gobernu Batzordeak hango antenak ugaritzearen aurka daudelako, eta ETBkoa erabiltzeko aukerarik izango ote litzateken ikusteko, Eusko Jaurlaritzari baimena eskatzeko gomendatu zaio telebista kate pribatuari.

Hamabostaldiari agur, oraingoz

Igandean amaitu zen II. Arte Hamabostaldia, kalistroetan izandako lunch-arekin. Ekitaldian zehar artistei ordainsariak eman zitzaizkien, eta baita Udalaren ordazkaritza egiten Alkatea eta zenbait zinegotzi ere. Jende ugari bildu zen ekitaldira, eta honela hurrengo urterartekoak egin. Hala ere, datorren 15etik aurrera egindako lan guztien erakusketa irekiko da, tailerretan bertan.



**Arrasateko
jatetxea**

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53

**JOSTEKO
OIHAL DENDA**

Esperientzia duen jostuna
behar da

Errekabarrena 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABAETA



Plenoa grabatzen BBC telebistako kamarak egon ziren

Istiluak osoko bilkuran

PSOeko zinegotziek utzi egin zuten pleno aretoa

Aspaldiko partez Arrasateko Udalak egin duen osoko bilkurarik istilutsuena izan zen joan den ostiralekoa. BBC telebista britainiarraren kamaren aurrean, gai ordenarekin hasi aurretik gertatu zen dena.

Jose L. Lana sozialistak hartu zuen hitza, aurreko Gobernu-Batzordeak aldebereko itzulpena ez jartzeko hartu zuen erabakia gaitsetziz. Sozialistek bileretan zerbitzu hori jartzea eskatu zutela gogoratu behar da, eta sistema horrek guztira ia hiru milioiko aurrekontua izango zuela, onartu izan balitz. Aurrerantzean hizkuntza batean zein bestean egindako interbentzio guztiak itzultzea eskatu zuen, eta hizkuntzaz, ideologiaz eta jaiotzaz egindako bereizkeria guztiak arbuiatu.

Alkateak eta Xabier Lasagak itzultzailea ez dela kendu gogora arazi zioten eta elektoralistatzat jo Lanaren

interbentzioa. Ruiz de Azuaren hitzek erantzun beroa izan zuten Mendiartxen aldetik eta hor ere tonua ikaragarri igo zen, zeren alkateak hitza eskatzeko esaten zion bitartean, sozialistak aurrera egiten bait zuen, berbari eutsiz. Lanak berriro hitza hartu zuenean, Eusko Alkartasunako zinegotziak publiko aldera irten ziren, sozialisten haserrea eraginez. Vivar lehenengo eta gainerako sozialistak gero ('Arrazismo ikasgaia ematen ari zarete', 'arrazistak' etab. esanez), irten egin ziren pleno aretotik, hitz gogorren artean.

Gai-zerrendan zeuden zazpi puntuk tramieta hutsa bihurtu ziren eta bost minututan onartu.

Musakolako Jubilatuen taberna ustiatzeko adjudikazioa Mertxe Najera eta Teodora Rebanakeri eman zitzaizen. Abaroa jubilatuen etxeko ileapaindegia, berriz, Elena Cardonari.

Usteak uste

Udalak modu demokratikoan aukeratuak izaten hasi zirenetik, makina bat plenotan egon naiz Arrasateko Udaletxean eta inoiz ez dut ikusi joan den ostiraleko osoko bilkuran bezalako ikuskizunik.

Publikoan berriemaileez gain, inor ez. Baina kazetarion artean BBC telebista ingelesaren begi ahaltzua zegoen. Espainiari buruz egin nahi duten dokumental serierako Arrasate aukeratu zuten, besteak beste Madrilgo egunkari batek zioten bezala, *Mondragoe abertzaletasun erradikalaren epizentroa* omen delako. Lurrikaren antzeko irudi dramatikoaren bila etorri, eta baita zinegotziek eman ere.

Sozialisten jarrera zaila da esplikatzeko, ez bada, kanpoko kamarak han zeudela aprobetxatuz, erakutsi nahi zirela Arrasate gatazka zibilaren amildegian bizi dela, gorrotoa legea dela hemen, gizabide falta ikaragarria dugula eta herritarren erdiari ez zaiola gaztelariaz adierazten uzten. Bestela esanda, Arrasate gobernaezina dela. EAKoen jarrerak ez zuten lagundu gauzak baretzen eta egin zuten planteo medio, egur gehiago bota zioten suari.

BBCren kamarak hartu zutenari esker, bada, Arrasateko goian esandakoaren exenplua izaten segituko du urte luzeetan. Zuek esango duzue egunero horrela den ala ez.

Joxe Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ilea jausten bazaizu, edo arazoak badituzu zure ilearekin, etor zaitez
GUBI ILEAPAINDEGIRA

Otalora 5, 1. A,
Tfnoa: 79 12 74



Aurten beste ume batzuk eta kamiseta berria

Kilometroak 90, Andoainen

Den a prest egun handi bat ospatzeko

Asteburu honetan ikastolen jaiak Andoainen bilduko ditu, lekua aldatuta baina festa handi berean, milaka euskaldun. Asteburu guztirako antolatutako artean, hala ere, bada zer aipaturik. Gaur ostirala profesionalen pilota partidua izango da, eta musikari dagokionez, *Zarama* taldearen emanaldia. Larunbatean, eta musikarekin jarraituaz, larunbatean *Akelarre* taldearen kontzertua izango da eta ostira-lean antzerki emanaldia, 'Mari Galanta', Sebastopoleko titiriteroen eskutik.

Kilometroetako egunean bertan,

berriz, auto iladarik sor ez dadin, eta aparkalekuekin arazorik ez, garraio publikoak erabiltzea gomendatzen dute antolatzaileek. Horrela, gure herritik ere autobusak izango dira, eta autoz joan asmo duenari, Zumarragatik aurrera tren hartzea gomendatzen zaio. Ordutegia honako hau izango da, Zumarragan: Goizeko 8.23an, 9.45ean, eta 10.45etan. Itzultzeko, arratsaldeko 6etatik aurrera izango dira trenak Andoainen. Tren zerbitzuek beharpenak izango dituzte egun berezi horretan.

■ Pumorin garaile

Felix eta Alberto Iñurrategi, mendizale atxabaltarrak, Himalaia-ko *Pumori* mendiaren gailurrera iritsi berri dira Antza denez, inork ere ez du hain denbora gutxian 7.161 metro mendi hori igotzerik lortu. Errekord-a, beraz, atxabaltarrentzat. Zorionak, mutilak!

□ Ikastaroen matriku'a

Famili eta gizarte-hezketaarako zentruak aurtengo ikasturteral-erako antolatu dituen ekintzen abonua egitean, programako hiru aktibitate ezberdinetan esku hartzeko aukera dago. Aurtengo kuotak hauek dira: hilabete-koa 1.500 pta., 3.800 hiruilete-koa eta urte guztikoa 9.500 pta. Aurten lehengo aldiz, filosofiarako sarrerari buruzko ikastaroa emango da.

JAIOTZAK

Canas Estrella *Alicia*, irailaren 16an.
Salaberri Lasa *Ana*, 22an.
Gimbert Angulo *Garikoitz*, 22an.
Agirrebeitia Ardanza *Alexander*, 24ean.
Molina Jaen *Ekaitz*, 25ean.
Iñurrieta Galarraga *Nerea*, 27an.
Egiara Fernandez-Rivera *Ana*, 28an.
Gonzalez Ortiz *Baleska*, 28an.
Arrotxa Herrero *Alazne*, 28an.
Arrinda Axpe *Maialen*, 30ean.

EZKONTZAK

Beatriz Jimenez & Jose Antonio Mulas. Irailaren 22an Elizaz.
Enrique Dalara & Maria Izaskun Balanzategi, 29an Elizaz.
Jose Luis Salaberri & Maria Esther Merino, 29an Zibilez.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^o Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^o Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, besektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

Unibertsitatera autobusak

Egunerokoentzat merkeago izango da txartela

Udaleko Gazte Zerbitzuak, PESA autobus konpainiarekin batean, Unibertsitatean ikasketak egiten ari diren gazteentzat eguneroko autobusak antolatu asmo du, Donostia eta Bilbora. Bergara eta Arrasateko ikasleak kontuan izanik, 87 dira interesa azaldu dutenak: Leioara, 19 Arrasatetik eta 21 Bergaratik, eta Donostiara berriz 11 Arrasatetik eta 6 Bergaratik.

Bi herri horietako jendez autobus bana betetzerik ezean, Tolosatik irtengo du Leioarako autobusak eta Donostiarako ere Arrasatetik irten eta Goierriatik zehar joango da. goizeko txandakoak bakarrik izango du autobusa hartzeko modua, baina arratsaldean eskola egokitu zaionak ere izango du ziurtagiria aurkeztu eta Unibertsitatean ordutegi aldaketa eskatzeko aukera.

Autobusak urriaren 15ean hasiko dira eguneroko zerbitzu hori egiten, eta honakook izango dira prezioak: Leioara Arrasatetik 450 eta Bergaratik 475 pta. eta Donostiara berriz, 625 pta. Arrasatetik eta 560 Bergaratik. Egunero joan-etorria egiten dutenentzat guzti hori. Astelehen eta ostiraletan zerbitzua erabili nahi dutenek txartel normala ordaindu beharko dute, autobusean lekurik egotera. Horiei ere



Bilbo eta Donostiara egunero ikasleak

nolabaiteko konpromezua eskatuko omen die enpresak, batzuetan jende gehiegi eta hurrengoan gutxi egotea gerta ez dadin.

Ordutegiari dagokionez, Leioarako goizeko 6.30etan irtengo du autobusak Arrasatetik, 8etarako han izateko, eta 6.45etan Donostiarakoak. Itzulera-koak ordubietan irtengo du Leioatik, eta Sarriko eta Deustutik pasa; Donostiatik ere ordu berean aterako da, Zorroagatik hasi eta beste fakultateetatik ondoren. Edozein informazio eskatzeko dei 45 05 45 telefono zenbakira.

□ Gripearean txertaketa

Arrasateko anbulategian *Negua Griperik Gabe* izenarekin burutzen ari den txertaketa kanpainak aurrera segitzen du. Orainartekoan 1.100 txerto inguru eman dira, anbulategian, Zaharren Egoitzetan eta auzoetan. Urriaren 31 arte hartu ahal izango da txertoa, anbulategian goizeko 9.00 etatik 15.00etara, nahiz hara joan ezina duenak norbere etxean.

□ Espeleologia ikastaroa

Besaideko Espeleologia sailak antolatuturik, honako egitarau hau izango du II. Espeleologi ikastaroak: azaroaren 10ean hitzaldi-audiobisuala eskainiko da, 11, 18, eta 25ean eta abenduaren 2an klase praktikoa eta irteerak. Federaturik ez daudenek 500 pta ordaindu beharko dute. Plaza mugatuak dira, 10 lagunentzat bakarrik, eta izenemateko epea urriaren 8tik 19ra izango da, gazteen informazio zerbitzuan.

□ Komite internazionalistak


Komite internazionalistak antolatuturik, 5. mendeurrenaren ospakizunen aurrean beste ikuspegi bat eskaini asmoz, aste guztian zehar antolatu dituen ekintzei amaiera emateko, Ekudorreko Nazionalitate indigenen konfederakundeko partaide batek hitzaldia emango du aslehenean, hilak 8, arratsaldeko 7etan Monterronen, *Erresistentzia indigena eta popularraren 500 urte* gaiarekin.

R
RICOH

Telefax-kopiagailuak

FIDAGARRITASUNA

Kalitate-kontrola ikuskapen-prozesu hutsa biano zerbait gehiago da RICOHen. Ziur aski, honetan jartzen zuen arreta eta arduragatik izan zen, bulego-makinen arloan, DEMING Sari ospetsua irabazi zuen lehen konpainia. Japoniako sari nagusia kalitate-kontrolaren arloan. "Bezerao dago produkzio-lerroaren amaieran", esan zuen behin Deming jaunak. Kalitate onenaren bilakuntza etengabeko prozesua dela esan nahi zuen, ikuska-penetik zerbitzuraino. Ikuspegi hau berenagatu eta bere garantia-sistemei aplikatu die RICOHe.




Informaziorik nahi baduzu, jarri harremanetan MAQUELSarekin.
Avenida 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ

RICOH
FIDEGARRITASUNA

Elkartetxea inauguratu

Joan den larunbatean, Arrasateko Eusko Alkartasunaren alkartokia inaugurazioa burutu zen, Alderdi horrek Ignazio Zuloaga kalean duen egoitzarena, hain zuzen ere. Eguerdiko 12etako inauguraziora, eta herriko zinegotzi eta afiliatuekin batera. Karlos Garaikoetxea, Inazio Oliveri eta Anjel Larrañaga etorri ziren, hizlari moduan mitinean parte hartzera. Agurraren ondoren, luntxa izan zen etortitako guzientzat, eta politikoldegiko bazkariarekin jarraitu zuen jaiak Kiroldegiko kantxara 500 bat lagun bilduz. Politiko ezagunen bisitaz eman zaio hasiera Arrasaten aurtengo hauteskundeen aurretiko ospakizun zerrindari.



Bilboko erakustazokan izango dira hil honetan.

Saiolanen *Ekide S.L.* jaio

Fresatzeko makina eredu berria sortu dute

Saiolanen barruan, aktibitate berrien suztapenerako ekintzetan, *Ekide S.L.* sortu da. Teknologia maila handiko fresatzeko makina dugu produktua. Grabatuak galtzairuan, eta gainerrako materiale bigunetan estanpatuak egiteko makina eredu sortu dute, merkatuaren egoera, enpresen eskaera eta hemengo nahiz kanpoko konpetentziako enpresek egiten duten produktua aztertu ondoren.

Aurrerantzean egingo duten lana bi alorretara zuzenduko da bereziki:

"*Bostomatik*" enpresa amerikarraren produktuak komertzializatu, eta bestetik, subkontrataziora joko. Honela, beste urtebete pasa nahi dute esperimentazio profesional bezala Eskola Politeknikoaren babesean. Subkontratazioari dagokionez, balizko bezeroen bila hasiak dira, baina oraindik ez dute eskaririk hartu, hil honetan bertan duten beste konpromezu bati erantzun arte. Makina Erramintaren Bienalean izango dira hilaren 17tik 24ra, Eskolak eramango duen erakusketaren barruan.



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABAETA

URONDO
elektrizitatea



Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

VE ECUADOR

Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

L ARRINGAN
auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Hauteskundetarako Mahaiburuak

31 mahaietan banatuko dira

Hauskundetako mahaiaik nork osatuko dituen, erabakita dago. Besterik ezean, mahaiburu edo presidenteak bakarrik jarri ditugu:

Ferixalekua

- M. Itxaropena Ayala Mugika
- J. Ignazio Saez-Azkunaga
- Lurdes Amozarrain Larrañaga
- Norberto Mondragon Artola
- Francisco Javier Arkauz Etxeberria
- Eugenio Arana Balzategi
- Jose Agustin Anso Eguren
- Emilio Ormaetxea Zeziaga

Santamaina eskolaurrea

- Juan Jose Barrutiabengoa Ezkurra
- Francisco Cabeza Saz
- M.Pilar Mondragon Bikondo

San Andresko eskola publikoa

- Aitor Azkargorta Gisasola
- Natividad Hernandez Nicolas
- Andoni Zabaleta Ayerbe
- Manuel Ayape Plancuelo
- Iñaki Gorospe Urionabarrenetxea
- Julio Saiz Moreno

San Antolin


- M. Isabel Zubizarreta Urrutia
- Maria Arrieta Uriarte
- Francisco Madinabeitia Aginalde
- M. Angeles Sanchez Nova

Erguingo Ikastola

- Eugenio Modesto Etxebarria Elorza
- J. Antonio Sanchez De los Santos
- Ines Kortabarria Ortueta
- Martin Uriarte Askasibar
- Antonio Carmona Segovia
- Jose Luis Ozaeta Bilbao

Jokin Zaitegi Ikastola

- Jose Ramon Barbarias Goienetxea
- M. Elene Orobengoa Ortubai
- Aitor Ramon Ormaetxea Lasaga



EEren zerrendaren aurkezpena

"Botorik botoena" izango da EEren lelo nagusia datorren hauteskunde kanpainarako. Joan den astean halaxe adierazi zuten Mondragoeko ezkertokian egon zen aurkezpenean. Gipuzkoako zerrenda aurkezteko probintziako buruak etorri ziren bertara, Xabier Gurrutxaga buru zela. Harekin batera, Garaialde, Anzendi, Baztarrika, Koro Garmendia, Koro Agote eta E. Zubiaga mondragoetarra.

Datorren legealdian bakearen posibilitatea eta EE Gobernuan sartzeko posibilitateak inoiz baino hurbilagoak ikusten zituzten. Gutxienez azken emaitzak errepikatzea zuten helburu.



I. Laborra Erdozain

ANALISI KLINIKOAK

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27



Arratsaldeko 5.30etan J.R. Elortzarekin gelditu baina bi ordu lehenago, maleta, boltsa eta enperauak aldi hartu eta Portaloian jarri zen lasai asko **Hideo Ishizuka** ikerlari japoniarra. Orain dela gutxi Joxe Azurmendiren "El Hombre Cooperativo" liburuaren itzulpena argitaratu du japonieraz. Laugarren aldia da Hideo Mondragoen dugula.



Ian Gibson idazle eta historigile irlandar-espainiarra ezaguna egin zen Federico Garcia Lorca poeta andaluzaren biografia idatzi ondoren. Espainian urte luzetan bizi izan da. Bera izango da BBC telebista britainiarrarentzat Espainia eta Euskal Herriari buruzko dokumental serei baten gidoia idatziko duena. Ostiral arratsaldean Udaletxeko pleno aretoan egon zen, bilera istilutsu hartan. Bukaeran ez zuen komentariarik egin nahi izan.

Suediako Parlamentutik etorri ziren. Kooperatibismoari buruz arduratzen den batzorde bateko partaide dira **Inga Britt Johansson**, Batzorde horretako presidentetza duen diputatu sozialista eta **Bengt Dorgstrom**, batzordeko idazkaria eta hango Barne Ministraritzako zuzendaria. Arrasateko esperientzia ezagutzera etorri ziren, eta bide batez, geuk ere ezagutu ahal izan ditugu eurak.

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia doan

Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate



Izen
PROPIOAK

● **AITOR SARASUA, 23**, atxabaltarra, Hezibide Elkar-teak kontratatu du, teknologia irakasteko programa berri bat lan dezan. Urtebetez ibiliko da horretan, egunerdiko lana burutuaz. Aitorrek injeniaritza ikasi zuen Eskola Politeknikoan, eta aurtun Irakasle eskolan hasi da, Magisteritza ikasten.

● **MIGUEL ANGEL ELKO-ROBEREZIBAR, 24**, bergarra izango da abenduaren hasieran Bergaran aterako den euskarazko aldizkariaren zuzendaria. *Jardun* euskararen aldeko taldean, komunikabi-deen arduraduna da. Deustu-ko unibertsitatean Ingeles Filologia ikasi ondoren, Eskola Politeknikoan ari da gaur egun, ingeleseko irakasle.

● **JON ANDUEZA, 24**, arrasatearra, Bergarako euskarazko aldizkariko erredaktore izango da, abendutik aurrera. Kazetaritza Leioan egina, *Arrasate Pressen* ibili da urtebetez, eta kazetaritza mailan *Ricardo Arregi saria* irabazi zuen, herri aldizkariaren sailean.

Aurtengo S. Migel jaiek ekitaldi berezia izan dute Angiozarren. Joan den igandean omenaldia egin zitzaien bertako bi musikari ezaguni: **Felix Aranzabal** Angiozarko *itsua*, soinu-joleari eta **Juan Larrañaga** atabaljoleari. Jende askok hartu zuen parte Angiozarko elizpean egin zen bazkarian eta aurre eta ondorengo ekitaldietan. Felix Aranzabalek 35 urtetan zehar jo izan du soinua Musakolako S. Isidroetan. Leintz bailarako auzoetan bereziki oso ezaguna izan da urte luzeetan jairik jai ibili delako festak alaitzen.

Rafael Etxandia eta **Arantza Atienza** ekainaren 16an ezkondu ziren, eta ezkonbidaia Canarias aldera egin zuten. Zorionik beroenak bioi! ▶



Epelde

Adi!

INGELESA

Edozein maila

ORDUA: Goizeko 10ak eta 12ak artean
Arratsaldeko 2ak eta 4ak artean.

Aproposa : etxekoandreentzat, langabetuentzat
ikasleentzat, dendarientzat eta
ordu horietan libre dauden guzientzat

PROMOZIOZKO PREZIOAK



Araba Etorbidea 4,
Tfnoa: 79 01 32
ARRASATE



ETXE-AUNDI

Dastapen-menua
urriaren 12rako

- * Itsaskien entsalada belar finekin
- * Ahate ragout-a letxua hostotan.
- * Legatza piperrada gainean.
- * Etxe Aundi gozotera.

3.500 pta. BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Irratizaleak: uhin bidez lagun

Arrasateko irratizaleak egoitza eta babesik gabe ekinean

Irrati bidez ezagutu zuten elkar, eta jendearekin urrutira harremanak izateko zoria dute. Bakarkako lana da baina bakardadearen aurka doana, eta gutxien espero duzuna izan daiteke. Irratizaleak dira.

Hasierak

Emisora erosi, piska bat ikasi eta ez dauka beste sekreturik, hasteko. Oinarrizko ekipoa emisorak eta antenak osatzen dute, eta hortik aurrera sofistikatuz doa dena. Antena teiltuan jartzea da egokiena, baina aukerarik ezean, leihoan ere ipin daiteke, inguruetan hormarik gabe, ahal dela. Zenbat eta etxe altuagoa eta ingurua garbiago, kalitate handiagoz hartuko dituzu emititutakoak, uhinek ez dute eta erreboterik egingo. Ekiporik merke eta sinpleena, 18 mila pazetan lor daiteke, eta emititzen hasteko Telekomunikazioetako bai-

mena lortzea 2.000 pta. kostatzen da urtean. Baina gainerakoan ez du gasturik emisorra etxean jarrita edukitzeak, konektatuta egotearen argi indarra baino ez. Telefonoan dei bakoitzeko kobratzen badute ere, baina irradi bidez, berdin kostatzen da Eskoritzako edo Parisko lagun batekin hitzegitea. Interferentziarik ez sortzea, eta irratizaleentzat bereziki emanak diren 40 frekuentzietatik irten gabe ibiltzea zaintzen dute telekomunikazioetakoek, eta ez dago beste kontrolrik.

Hurbil nahiz urrutira

Gueuz emitituz gero, inolako arazo barik hartzen dira Oñati, Bergara eta inguruetakoko beste herrietako irratizaleen aho-tsak, atzerriko interferentziarik izango ez delako. Atzerrikoekin jardun nahi izanez gero, ordea, hobe da egunez emititzea, aukera handiagoa izango da eta norbait harrapatzeko. "Harrapatu" esaten da, nahi denarekin ez bait da normalean hitzegiterik izaten.



Iazko 24 orduak Murun egin zituzten

Adiskide hori beharbada ez da etxean izango, edo une horretan irratiarekin ari bada ere, gerta daiteke beste kanale batetan egotea. Horregatik, badira egun eta ordu izendatueta elkarrekin harremanetan jartzen saiatzen direnak, zita jartzen dutenak, eta uhinak garbi izanez gero, baita lortu ere.

Q kodigoa esaten zaio irratizaleen hizkuntza bereziari. Letra batzuk, agur

bidea dira. Elkarrizketari eutsi nahi bazaio, beharrezkoa da beste hizkuntza batzuk jakitea, baina kontaktua egin eta norberaren koordinadak emateko, aski da kode internazionala ezagutzea.

Adiskidetasunaren legea


Irratizaleren garaikurra adiskideak dira. Edozein informazio eskatzeko, bezpera gaueko filmea komentatzeko, edo hurrengo asteburuan egin asmo duten akanpadari azken ikuituak emateko erabiltzen dute irratia, ezagutzen ez dituzten lagunekin askotan. Uhin bidez ezagututako lagunak aurrez-aurrez lehen aldiz ikusteari *betikalean ezagutzea* esaten diote, eta adiskidetasun hori betirako gordetzen da. Munduaren beste muturrean egindako adiskidearen lekuko, QSL deituriko txartelen bildumak gordetzen dituzte kontu handiz, asko pozten du

**Elkartean 30 dira
bakarrik, baina
Arrasaten 100
irratizaletik
gora**

egiteko era berezia- Breiko esanez hasi eta QRTrekin amaitu-, munduko edozein bazterreko laguna egiteko

eta uhinetako lagunen oroi-garri eta konfirmazioa jasotzeak.

Emititzen ari denaren ahotsa kanale horretan da goen edonork hartu dezaleela kontutan izanik, irratizaleek urrezko lege bat daukate: norbaitekin hizketan egonda, bien arteko elkarriketan beste norbait sartzan bada, hiruren arteko bihurtzen da elkarriketa, ezin da inor baztertu, eta egunen batean, nola ez, bertikalean ezagutuko dute. Kolaborazio handia, edozer gauzatarako interesik gabeko laguntza, benetako lagunak egiten dira.



Gau eta egun uhineko ahotsen bila

Arrasaten

Arrasate barruko komunikaziotarako 11. kanala erabiltzen da. Une horretan kanal berean emititzen

ari diren guztiek jasotzen dute seinalea, eta *gurpilean sartzeko* aukera du entzuten dagoen edozein irratizalek.

Arrasateko Irratizaleen Kultur Elkarteak 30 bazkide baino ez badira ere, jakin badakite ehundik gora dire-

la irratizale arrasatearrak. Dragon Rojo, Atila, Pegaso, Albatro, Furia ... horiek eta beste asko, gaitzizenen azpian gordetzen dira elkarte-ko irratizaleak. Arrasatekoek oraindik ez dute egoitzarik eta Monterronen nahiz edozein tabernatan biltzen dira, irratitari buruz hitzegi, adiskidetasuna gorde eta adiskide berriak egiteko. Lokala lortzen dutenerako, berriz, asmo ugari buruan: aparailu indartsua jarri, irratizaleatasunarekin zerikusia duten argitalpenak edonoren eskura ipini, eta orainarteko ekintzak ugari-tu. Oraingo baldintzetan ere ez daude, hala ere, geldik egoteko. Urriaren 12rako Arrasateko 24 orduak antolatatu dituzte.

Hiru urtez irratizale

Hiru urte baino zerbait gehiago da zaletasun hau Gotzonen bitzitan sartu zela. Ez zuen aurretik mundu hori ezagutzen, eta gurasoek erregalatutako walky-talky batekin jolasean hasi zen. Arian arian, irratizale batzuekin harremanetan jarri zen bere jostailu berriaren bitartez, eta horrelaxe hasi zen dena. 'Tresneria ezagutzera gonbidatu ninduten, eta zaletu egin nintzen. Behin saltsan sartuz gero, zirikatu egiten zaitu, hau edozein bizio modukoa da'. 18 urte besterik ez ditu eta hiru daramatza jadanik irradi igorgailuarekin, eta hauxe da bere hobbia. 'Zenbat eta gehiago ibili, gehiago atsegin duzu mundu hori, eta irradi handiagoa nahi duzu. Maestria ikasketak egiten ari den arren, zaletasun honek ikasketekin zerikusirik ez duela aitortzen digu, izan ere, edozein lanbidetako jendea dago egindako lagunen artean. Inguruko herrietako jendearekin hitzegiten du batez ere. 'Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Bergara ... emititzen duzun orduan emititzen duzula, beti dago norbait entzuten, lagun asko egiten dira, asko eta onak'.

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

BRANKA
jatetxea

Eguneko menua eta karta



Ozaeta

Iritsi da jaia

Urtero bezala, milaka lagun dotore

Ez dago hitzen beharrik.
Argazkiek eurek esaten
dute dena, eta
gainerakoa gaur gauean
ikusiko da.

Iturriotz taberna

MARITXU KAJOI EGUNEAN
GIRORIK JATORRENA






Markiegik estilo **Z** bete du 50 urte

MARKIEGI,
GIZONEZKOENTZAKO
MODA





Programie

Urriak 5, Eguakotxa. Maritxu Kajoi

- **8etan:** Itxafleruek. Eta badakitue dotore gero, eh!
- **5etan:** Herriko plazan eta 5etatik aurrera, kale-animaziñue gaztetxuendako. Ikustekue izango da!
- **6etan:** Gaztetxuek Maritxui lore eskeintzie.
- **6,30etan:** Erraldoi eta buruhandixek Mondraueko gaiteruen laguntziaz.
- **7etan:** Ostera be itxafleruek, baine oinguen bai, txikiteo ofizialai hasierie emungutzien itxafleruek. Eta urtien zihar suertedunek izeteko, **Eskapularixua** erosi biher. Eskakeau barik gero, eh?
- **8etan:** Herriko kuadrillek lora sortak eskeiniz Maritxui omenaldixe.
- **11etan:** Sasoidun gorputzok astinketako, herriko plazan "Artxubi" orkesta mundiala.
- **11,30etan:** "Maixa eta Itziar" trikitilari jatorrak Sebero Altube Plazan.
- **1,30etan:** "Maritxu Kaba"ren presentaziñue. Eta ze hoba aparteko SHOWaz presentetie baino. Honetarako ameriketatik okasiforako ekarritteko puntako artista taldie izengo da gure artien.
- **Goixeko 5etan:** Monterroneko zelaixen Urbanen hazittako hogeitxarrikuma jareingo die, eta harrapetan ditutuenei on ein dagixela. (Abixue: harrapaketie esku hutsik ein biek da).




ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGUURUAK

Kontzesifio kalea 4, behe Tñoa: 79 83 95 ARRASATE

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489



a,eme..interiores

Etxeko ekipamendu osoa!



Ozaeta



Maritxu Kajoi 90



Ozaeta

Serio-serio daude gure hiru lagunak; **Josu Galdos**, **Joseba Valles** eta **Jabi Elduaien** ditugu. Iaz honela ikusi genituen Maritxu Kajoin, eta aurtengo sorpresaren bat ote daukate? Sonbrerua eta betaurrekorik bai ote?

Julio Lezeta eta Harristi honela harrapatu genituen iaz. Nork tripa handiagoa aterako, ala harrijasotzaile (botilajasotzaile) lanetarako entrenamenduak egiten. Arratsaldez ala goizez ateratakoa ote da argazkia? Aurten ere ez dira faltako.

Ezkerretik hasita zutik, **Bautista**, **Txispas**, **Fernando**, **Luisito** eta **Rafa**; azken hau kartzelan dago gaur egun. Jarrita dagoena **Mari Angeles** Txispasen arreba. Hauen buruetan, eta beste batzuenetan sortu zen Maritxu Kajoi ospatzeko ideia. Denak ez dira aurten herrian izango, baina daudenek bai bapo ospatu.



Pedro Luis

RICOH

Telefax-kopiagailuak

ZERBITZUA

Hau da RICOH-ren giza ikuspegia: zerbitzu teknikoaren ikuspegi arin eta eraginkorra, arazoak denboraldirik laburrenean konpondu ahal izateko.

Zerbitzu-ikuspegia gure erabiltzaileak informatu eta trebatzeko, kopiazko, faxarekin, telefaxaren errendimendua ahalik eta onena izan dadin. Honela, elementu guztiz erabilgarri bihurtzen ditugu gure ekipoak, zure lana eraginkor eta atsegindariago egin dezaten.

ERAGINKORTASUNA

R
ZERBITZUA

ARINTASUNA

TREBAKUNTZA

Informaziorik nahi baduzu, jarri harremanetan **MAQUELSA**ekin.
Avenida 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ

Zerbitzua



Ez dakigu argazkia zer ordutan atera zuten, baina orduak aurrera, zalantzarik ez. **Mari Jose Iglesias** eta bere lagunek iaz honela ospatu zuten Maritxu Kajoi, botilak testigu, nola ez.

8an atera zuten argazki hau **Rosi Katangak** eta bere lagun **Begoña Arroyok** (orain espetxean dagoenak).

Urtero jantzi berria, eta urtean baino urtean dotoreagoa. Jendeak ez omen du aspaldian soinekoa etxean josten. Denda dotoreetatik eginda ekartzen hasi dira asko eta asko. Rosik berak josi ohi ditu arropak, eta lehiaketak irabazteko modukoak josi ere.

*Berriro ere Maritxu
etorri da berez
jai zaharra izan arren
dugu berrikuntzez
mahatsa helitzeagatik
hain giro lehorrez
txanpan berria dakar
sekulako indarrez.*

*Aurten lehiaketakin
daukagu jolasa
pasarelatzat hartuz
kale eta plaza
gau dena tirrin tarran
dugunean pasa
orduan ondo neurtu
liteke disfraz.*

Goiztiri Opariak

Maalako errebala 11, Tfnoa: 79 87 43 ARRASATE

Jose Aranzabal

Metz

SONY


Banatzaile ofiziala



Grabatu zeure egunik gogoangarienak



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



SUKALDEKO ALTZARIAK

Bañez Doktorea 8, Tfnoa: 79 18 92

Jose Aranzabal

TB, BIDEOA, HI-FI, ELEKTROGAILUAK

Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16

Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurria egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.


Poliza aintzindariak.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK



Jose Antonio Urbeltz

Dantza munduaz kutsatutako gizona



Juan Antonio Urbeltz, "Zortziko" ikuskizunaren egilea, Iruñean jaio zen 1940. urtean. Txikitatik Donostian bizi izan da, eta ia-ia bere burua donostiartzat badauka ere, Iruñekoa dela esaten du beti.

— Nondik datorkizu dantzarako zaletasuna?

— 18 urterekin gaueskolan nengoela Goizaldin sartu nintzen irakasle baten eraginez. Etxera joan nintzenez gurasoei komentatu nien eta oso pozik jarri ziren. Zazpi urte egon nintzen Goizaldin, gero hasi nintzen Argiarekin eta orain arte, hogeitamar urte dantza munduan.

— Iruñean jaio, Donostian bizi, dantzarako zaletasuna nolabait bertan pistu... eta nola hasi zinen zaletasun hori lantzen?

— Ni hasi nintzenez baneukan kontzientzia bat, iturria ikusteko gogo, lehenik arazo metafisikoa izan zen niretzat, dantza azpian zer dagoen jakitea lortu behar nuela erabaki nuen. 1965. urtean izango zen hori gutxi gorabehera. Orduan uste nuen gure arbasoek utzi zizkiguten dantzez aparte,

besterik ez zegoela. Iker-tzen hasi nintzen eta era berean atera gabe zeuden makina bat dantza zeudela konturatu nintzen.

— Zergatik ez ziren bada, dantza horiek ezagutzen?

— Kontuan hartu behar da 1936. urtean etendura gogorra egon zela guda zibilagatik. Zentzu horretan herritar ziren makina bat ohitura galdu egin ziren, jende piloak kanpora joan zen eta bertan gelditu zirenek ere ez zuten gureak diren ohiturak kaleratzeko girorik aproposena aurkitu.

— Iturri horrek hainbeste ur zekarrenez zaila izango zen abiapunturik aurkitzea, ez?

“Euskalerriko jendeari bihozkada eman nahi izan genion”

— Beno, ni eskualdez eskualde hasi nintzen. Asko mugitu nintzen eta tokian tokiko jende egokiena aurkitzen saiatu, euskal kulturaren murgilduta zebilen jendearekin harremanetan jarri eta ahal nuen guztia ikasi.

— Eta ikasketa horiek nolabait aplikatuz "Zortziko" sortu duzu?

— Baietz esan daiteke,

ikasitako eta jasotako esperientzia guztiekin eratu genuen "Zortziko". Lan hau egiterakoan Euskalerriko jendeari bihozkada eman nahi izan genion, gaur egun ere eman nahi dioguna. Dantza eta ohitura zahar hauek gorde nahi ditugu gure arbasoekiko lotura bakarra suposatzen dutelako. Nahi eta nahi ez guretzat mundu sakratua litzateke.

— Aipatzen duzun mundu sakratu hori berriztatzea ez al da garesti samar ateratzen?

— Kostatu bai, baina ez diru aldetik. Nik betidanik esan izan dut hemen arima eta burua jarri behar direla, bestela zaila da. Kontuan hartu behar da ehundaka urtetan gure aurrekoek eu-

ren bihotza jarri zutela dantza horiek gordetzen, eta guretzat hori oso inportantea izan behar da.

Bestalde, dirulaguntza ere jasotzen dugu Jaurlaritzatik, baina guk ordaina eman diogula uste dut, hau da, gure lana bete dugula.

— Dirua alde batera utzirik, erraza da 200 dantzariko taldea zuzentzea?

— Ez dakit zenbat emandaldi egin ditugun, hogoiren bat izango dira, baina ikuskizunak ez du bere freskotasuna galtzen. Beti entsaiatu beharra dago. Lehen egunean bezala.

— Lehen eguneko aipamena egin duzunez, non izan zen berau?

— Confolens-en eman genuen, Frantziako herriska batean ospatzen den jaialdi baten barnean. 1985. urtean Donibane-Lohitzuneko ordezkari batzuk izan ziren bertan eta antolatzaileekin harremanetan jarri. Euskal dantzekin emanaldirik egingo zuten galdetu zien. Gero Iparraldekoak nirekin jarri ziren harremanetan eta orduan pentsatu genuen "Zortziko" aurkeztea.

— Hasierako emandaldi hartatik gaur egun eskaintzen duzuenara, zenbait gauza aldatu dira, ez?

— Bai gauza dexente aldatu da. Beti izan dut pastoral eta maskaradetan oinarritutako zerbait egiteko asmoa, eta azkenaldi honetan horiekin lotura duen dantza ere sartu dut, Zube-roako folkloreak zerbait berezia duelako.

— Eta dantzaren etorkizuna Euskadin?

— Herriak bere kulturari eutsi behar dio. Zaletuak ere badaude. Alde horretatik baikor nago.

900 pertsona Zaldibarren futbitoan

Igandean omenaldia Jesus Morenori

60 taldek hartuko dute parte Mari-txu Kajoi bixamonean hasiko den Zaldibarko futbito txapelketan. Guztira 900 pertsona inguru izango dira astez-aste, txapelketa hau dela eta ez dela, baloiaren atzetik ibiliko direnak.

Zaldibarko futbito txapelketako antolatzaileen arteko batek zioenez, sei urte geldirik egon ondoren, ez omen zuten hain erantzun onik espero kuadrilengandik. Bere garaian jakitera eman zenez, txapelketa apirilamaiatza inguruan bukatzeko asmoa dago. Asmo hori bete ahal izateko gutxienez 30 partidu jokatu beharko liriteke asteburuero; horregatik, Zaldibarko frontoiaz aparte, beste tokiren batzu ere erabiliko dira, Santamaina, Polikiroldegia, eta ikastolak adibidez.

Hasieran aipatutako 60 taldeekin antolatzaileek 4 grupo egin dituzte, bi 14 taldekoak eta beste bi 16koak. Bete beharreko arauak asko badira ere, bada bat antolatzaileek azpimarratu nahi izan dutena: ordutegia betetzea, esanez berandu hasita ere partidoak



Zaldibar berriro ere futbito zaleen topagune

bukatu beharreko orduetan bukatuko direla kasu guztietan.

Futbito partidoei hasiera larunbatean emango bazaie ere, aurtengo txapelketako lehen ospakizun berezia igandean egingo da, Jesus Morenoren omenaldia, orainarte eskeini duen

laguntzagatik.

Bestalde, aipatzekoa da oraindik arbitroei dagokionez ez dela erabaki zehatzik hartu eta printzipioz taldeetako jokalarien lana izango dela hori, nahiz eta gero beste irtenbideren bat bilatu.



Eskaladan Bea Jimenez berriz ondo

Joan zen igandean burutu zen *Donostia Indoor* eskalada txapelketan Beatriz Jimenez arrasatearrak bigarren postua lortu zuen emakumeen arteko lehian. Larunbatean finalera pasa ahal izateko frogak burutu ziren eta arrasatearrak ez zuen inungo arazorik izan lau finalisten artean sartzeko.

Igandeko finalean Ana Ibañez kataluniarrak eman zituen pauso seguruenak hormaren kontra, Beatriz Jimenez bigarren gelditu zelarik. Gogoratzekoa da Bea Jimenez Euskadiko txapelduna dela egun, iaz Bergaran, eta inork espero ez zuenean lortutako titulua.

**E D E L
TAPIZTEGIA**

*Gortina
Alfonbra
Koltza*

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA


F A N C Y

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

IÑAKI MAIZBIDE

Euskal
txabalina
buru

PODIUMA



Zazpi urte bete dira dagoeneko Iñaki Maizbide atletismoa egiten hasi zenetik. Ordutik hona, gauzak asko aldatu dira, atletismoari dagokionez Maizbideren bizitzan eta onerako gainera. "Egun baten egurrezko makila bat harturik Iturripera joan nintzen, jaurtitzeko asmoz. Ez nekien atletismo taldea zegoenik ere. Egun hartan Fernando Zufiria han zegoen eta taldean sartzeko konbentzitu ninduen".

Atletismo munduan sartu zenetik zazpi urte pasa badira ere, azken bietan espezializatu da txabalina jaurtiketan. "Hasieran beste gauza batzuk egiten nituen, altuerako jauzia, pisu jaurtiketa,.... Gero txabalinarekin hasi nintzen, duela pare bat urte 48 metrotaraino jaurtitzen nuelarik".

Urruti asko utzi ditu Iñaki Maizbidek 48 metro horiek, orain bi aste 60.78 metroko marka egin bait zuen Tolosako Berazubi estadioan, Euskadiko errekor berria ezarriz eta txabalina 60 metrotik gora bidaltzen duen lehen euskalduna bihurtuz. "Marka horretan eragin handia izan du txabalinarekin aldaketak. Jakina denez txabalina zaharrarekin askoz ere gehiago jaurtitzen zen.

Teorian txabalina berriarekin gu-

txiago jaurti behar da, baina nire kasuan ez da horrelakorik gertatu, zaharrarekin baino gehiago botatzen dut eta. Zergatik?, agian txabalina berriari eskua hartu diodalako"

Eskua hartu edo ez, entrenamendua aipatzen du Maizbidek errekor eta marken oinarritzat, batez ere teknika aldetik. "Indarrak zerikusia badu ere, gehienbat teknika da landu beharrekoa. Jaurtiketa bakoitzean indar bera izan dezakezu eta marka hoberena lortzen da indar hori behar bezala erabiltzen bada".

Teknika ez lantzeari leporatzen dio Maizbidek aurtengo progresio eskasa. "Errekorren kontua dela eta ez dela, jendeak pentsa dezake hau izan dela nire denboraldi hoberena, eta ez da hala. Laz askoz ere hobeto ibili nintzen, duela bi urte baino 11 metro gehiago jaurti nituen eta; aurtengo metro bat besterik ez dut hobetu, teknika sesiorik ez dudalako egin seguruenik. Hiru urte barru Espainiako errekorra gainditzea espero dut".

◆ Mondra azken

Ez zitzairen batere ondo joan gauzak Mondrako jokalariei pasa den igandean Zornotzara egin zuten bidaietan. Dirudienez Mondragoetarrek oso partidu eskasa jokatu zuten eta ondorioz lau gol jaso zituzten. Hori gutxi balitz, aipatzekoa da ligako sailkapenean Mondrak azken postua betetzen duela.

Dena den, asteburu honetan berriro ere partidua izango da Atxabalpen, oraingoan Irungo Real Unión-en aurka. Partidu hori aurrera ateratzea erraza izango ez bada ere, aukera ona izan daiteke taldeak erreakzionatu eta lehen garaipena lortu dezan.

◆ 28-0 galdu Rugbyan

Pasa den astean eman zitzaion hasiera Rugby txapelketari eta egia esan arrasatearrek ez zuten emaitza onik lortu. Mungian jokatu zuten eta jipoi handia hartuta itzuli ziren. Hurrengo sei partiduak etxetik kanpo jokatu beharko dituzte; hala ere, jokia eta emaitzak hobetzea espero da.

Partidu hori utziz, aipatzekoa da jokalaria zein zuzendariak rugby zelai berriaren zai daudela, oraingo ezin bait dute behar bezala entrenatu. Zelaiaren arazoa konponduko ez balitz, baliteke rugby taldekoek sei partidu baino gehiago etxetik kanpo jokatu behar izatea.

◆ Eskubaloari hasiera

Urduliztarrak izango dira larunbatean Arrasate Kirolak eskubalo taldearen etsai, era horretan aurtengo denboraldiko bigarren mailari hasiera emanez.

Maritxu kajoi bixamona denez, ez dirudi ligari hasiera emateko egun egokiena denik, hala ere, garaipenean beste ezertan ez dute pentsatzen Arrasate Kirolak taldean.

ETXEPARE - BILINTX
LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak


Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Kirola eta osasuna (II)

Esan bezala, kirolak osasunean duen eragina aztertuko dugu hemen aurrera: zer egiten den gure herrian, sortzen dituen onurak, gorputzarentzako ondorioak, debekuak, kirola behar bezala egiteko aholkuak, etab. Gainera ez ditugu baztertu-ko garrantzia duten beste alderdi batzuk ere: kirola eta kontsumoa, leihakortasun edo izpiritu konpetitiboa, neurririk gabe egitea, etab.

Bizitza mugimendua da, eta iharduera edo aktibitate fisikoa gorputzak berez duen premia.

Milioika urtetan zehar, gizakia aldatuz joan da,



sendoa eta aktiboa izateko. Ez zen inoiz pentsatu mahai baten atzean edota telebistaren aurrean hainbeste ordu jarrita egon beharko genuenik. Guztiok ongi jakin arren kirol-motaren bat, zerbait egitea primeran etorriko litzaigukeela osasuna hobetzeko; halere, oso gutxi dira erregulartasunez kirola

egiten dutenak.

Gure herrian 1988 urtean 500 gizon helduri egindako inkestak erakusten zigunez, %13 bakarrik ziren erregulartasunez egiten dutenak, hau da, astean hiru saio gutxienez, eta saio bakoitzak ordu beteko iraupenez.

%63 ziren ezer egiten ez

zutenak, hitzaren zentzurik zabalenean geldikorrak zirenak, alegia.

Gainerako %24ek noiz behin egiten zuten kirola, egun bakanetan, aste-buru batzuetan, bat ere loturirik gabe... Eta kirola egiteko era hau, noizbehinkakoa, arriskutsua izan daiteke. Izan ere, ohizkoa ez duen lana egin behar izaten du gorputzak, horretarako bat ere prestatu gabe; eta horrela, arriskua areagotu egiten da eta istripu mortal bat baino gehiago sortu izan du.

Osasuna hobetzeko egin behar da kirola, eta ez berau alferrik galtzeko.

Eukeni eta Arantxa

Espeleologia ikastaroa

- Besaide Espeleologia Saileko partaideen eskutik .
- 16 utetik gorakoentzat
- Azaroak 10, 11, 18, 25 eta abenduak 2
- Plaza mugatuak
- Izena emateko epea: urriaren 8tik 19ra.

- Matrikula doan (Federatuak ez daudenek 500 pta. ordaindu beharko dute).





ARRASATEko UDALA

**Udal-Plenoak, 1990eko irailaren 28an egindako
ohizko bilkuran hartutako akordioen laburpena.**

- S-6 Sektorean eta U.6.11 Unitatean Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Elementuak Aldatzeko Testua behin-behinekoz onartzea.
- Garibai Plazaren urbanizazioa burutzeko ideia lehiaketa aginduko duten oinarri arauak onartzea, eta lehiaketa hori deitzea.
- S-8 Sektoreko (Gorostiza) Urbanizazio Proiektuaren haserako onespena.
- Musakolako jubilatuen etxeko tabernaren ustiapena MERTXE NAJERA eta TEODORA REBANALI adjudikatzea.
- Abaroako ileapaindegiaren ustiapena ELENA CARMONA LOPEZI adjudikatzea.

Arrasaten, 1990eko Urriaren 2an.

ALKATEA

Diglosia gradu kontua ere bada (II)

Lurralde berean funtzio ezberdinak betetzeko bi edo hiru hizkuntza ditugunean diglosia ematen da, hizkuntzen artekoa oreka ezinezkoa baita. Hala ere, bada ezberdintasunik, segun eta zenbat funtzio betetzen dituen batak eta zenbat besteak, lehen, bigarren edo hirugarren graduko diglosia izan baitaiteke. Betebeharrereko funtzioetan hizkuntzen arteko desoreka handia bada, handia izango da diglosia ere.

Diglosia gradu ezberdinak

Semi-diglosia: (Lehen graduko diglosia) Hizkuntza estandarra eta hizkuntza



Eusakararen aldeko jaietan milaka jende biltzen da

beroren beste variable bat.

Funtzio nazionala soilik betetzen duen hizkuntza

estandarraren eta hizkuntza beraren beste barietate baten artean gertatzen den

egoera genuke. Bien arteko funtzio banaketa ematen da. Hizkuntza estandarra sekula ez da erabiliko, familia funtzio eta funtzio lokalean eta dialektoa ere sekula ez da helduko estandarraren funtzioetara.

Diglosia honek pertsonengan du bakarrik eragina. Diglosikoa izateak esan nahi du, pertsona horrek ez duela hizkuntza bere osotasunean menderatzen. Beraz, semi-diglosiak ez du eraginik ez komunitate linguistikoarengan ez hizkuntzarengan, honexegatik izan daiteke hain zuzen, egonkorra.

Atalataikoan

(Jarraituko du)

Urrirako Kultur Ekintzak

• ZINEMA (Amaia zineman)

- 11- Tampopo
- 18- Inseparables
- 25- Desde Liverpool con amor

• TXOTXONGILOA (Herriko plazan)

- 13- TAUN TAUN "Laur eta Lorea"

• MUSIKA

- 19- THE FOUR BROTHERS
(Amaia antzokian)
(Afrikako musika taldea)

• ERAKUSKETA

- Monterronen
Gizakia eta bere inguru ekologikoa

• ANTZERKIA (Amaia antzokian)

- 27- Markeliñe: "Plumas Celestiales"



ARRASATEKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Juan Jose Urrea

Pelotari arrasatearrak duela bost urte erosi zuen orain daukan berebila, *Seat Ronda* urdina. Pilota partiduak direla eta, asko ibiltzen da autoz, jokatzan dituen partiduez gain, baita beste batzuenak ikusteko ere. 'Zapaltzea dagoenean, gustatzen zait' baina kamino labanean poliki ibiltzen da, behin Kanpazarren amildegian behera ere joan zen eta. Inoiz ere ez du gerrikorik jartzen eta auto-stopean soldaduak hartzen ditu batez ere. Autoa berak garbitzen du garajea mangerarekin, garbi edukitzea gustatzen zaiolako, eta eskuko kailuak biguntzeko.



fas

Offset Inprimaketa

- Fakturak
- Kartazalak
- Foileto eta kartelak
- Karpetak

- Bisita txartelak
- Gonbidapenak
- Lehenengo eta hurrengo orriak
- Albaranak

- Prezio egokiak tirada txikitetan
- Bizkortasuna (emanaldi epea 48 ordu)

Fotokopiak

- Plastifikaketa
- Eurokalkoa
- Autoedizioa

- Koloretako eta zuri-beltzeko fotokopiak egiten dituen, Deba Garaiko lehendabiziko denda
- Azaleztapenak
- Telefaxa
- Aurreidiseinuak

fasprint

Inprimaketa denda

Arrasate Pasealekua, 2
Telf. 77 06 11
Fax. 77 09 86
20500 Arrasate

Eukal Pirineoak bizikletan. 1990eko uda (I)

Fitxa teknikoa
 Nondik nora:
 IRUN- ZURI-
 ZA
 Uztailaren
 29tik abuztuaren 3ra
 Bizikletariak: Andoni
 (arrasatearra), Angel,
 Joserra eta Mikel.

Lehen etapa

Uztailaren 29an, 6 ordu, 54 minutu; guztira 72 km. Lehen etapa hau egiteko Irun herriraino abiatu ginen. Maletak ondo bete, janaria erosi, uraz ondo hornitu eta muga ingurutik abiatu ginen Endarlatza aldera, Bidasoan barrena, ingurune zoragarri asfalta-



Bizikletan gora. Atzean Larraun mendia

tua, eta Beratik Luzuriagara aldats goran.

Bide hau oinez egiteko Ibardinetik Larrunera joan

beharra dago eta hortik Lizuniagara jaitsi daiteke. Bazkaldu edo bestelakorik egiteko, leku aparta.

Lizuniagatik Lizarrieta-

raino dena pistaz, Ibantelli mendiaren mendebaldetik. Lizarrietan berriro mugaldea; hemen Etxalarreko usategia deritzona ikusteko aukera izan genuen. Denak pista zabalak dira, baina galtezko arriskuaz. Bertan pista bat hartu eta Zugarramurdira eroan gintuen. Urdazubira ere joan ginen eta hemendik Otsondo mendatera. Oraingoan errepidetik gora. Otsondo mendatean egundoko txoko polita aurkitu genuen. Bertan iturri eta guzti. Orain maletak askatu, sakua atera eta atsedena hartzeko parada.

K. U.

(jarraituko du)

**FELIPE
 MADINA
 ZURAK**
 Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

ZENBAKI

Kontabilitatea
 Fiskalitatea
 Lana
 Zuzenbidea
 Juridikoa
 Finantzaketa
 Aseguruak

Basabe industriaketa
 ARETXABAETA
 Tfnoa: 79 88 75
 79 75 99

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
 Tfnoa 79 29 91
 ARRASATE

**I
 R
 A
 T
 I**

Ferrerias kalea
 Tfnoa: 79 71 80

VICTOR RUIZ MELGAR
 Pinforea
 Erdiko kale 32, 4.
 79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)
 ARRASATE



Indarberritu den lehoi arrasatearra



RONEO

■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

• 1929. ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze saioa heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**-rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituztelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aulkietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza



Aste gazte

Gure gizarteak onartu behar du gazteriari hizpidea emateak dakarkeen arriskua. Gazteen ikuspegitik, gaurko kinka larriak deuseztu ditu helduen ziurtasunak, eta agerian jarri haien kontraesan eta itxurakeriak; hizpidea eman behar zaio gazteriari, ez bera baitan duen egonezinari osabidea emateko, edo gure babeskeria eskaintzeko; hizpidea eman behar zaio esatekorik baduela uste dugulako.

Jose M. Quintana (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea)

Gazte-Txartela

• Aurtengo Gazte-Txartelak, gutxienez, Abendurarte balioko digu, aurretik ez bait dago kanpainaren berria egiteko asmorik.

Jaialdiak

• Irailaren 30ean hasitako Gasteizko XV. Nazioarteko Antzerki Jaialdiak Urriaren 24erarte proposamen estetiko berriez beteriko antzezlan ugari eskeinitako dizkigu.

Bekak

• "Amerikaren aurkuntzaren V. mendeurrena" bekak. Nazionalitate guztietako lizentziatu ikertzaileei zuzendua. Diru-kopurua: Estatu Espainolean bizi direnentzat 1.250.000, atzerrian bizi direnentzat 1.500.000 pta. Epea: 90-10-12.

• Hezkuntza Berezia: 90-91 ikasturterako bekak. Gutximen fisiko, psikiko ala sentsorialak afektaturiko 14 eta 17 urteko ikasleentzat. Epea: 90-10-31 (BOE 90-6-26)

• "Robert S. Mc Namara" Bekak. 35 urtetik beherako lizentziatuei zuzendua. Ekonomi garapen arloan ikerketa-lana egin edo postgradu-ikasketak burutzeko. Diru-kopurua: 25.000 dolar. Epea: 90-11-1

Kibbutz

• Israelgo Kibbutz baten lan egin nahi baduzu, honako baldintza hauek bete behar dituzu: 18 urte baino gehiago izan, medikuntz zertifikatua, istripu-asegurua ordaindu (35 dolar), 250 dolar eduki, ingeles ezaguerara. Bidaia eta gestio guztiak: 107.800 pta.

Lehiaketak

• Elorrioko "Errebonbi-loak" I. Argazki-Lehiaketa. Zuri-beltzean edo koloretan. Gai librea. Egile bakoitzak, gehienez, 3 argazki aurkez ditzake. Sariak: a) ohorezko argazki-sorta: errebonbilo eta 26.000 pta.

b) modalitate bakoitzeko 3 sari: 20.000, 15.000 eta 10.000 pta gehi garaikurrak. Lanak aurkezteko epea: Urriaren 15erarte.

• "Paco Mollá" IV Poesia-Lehiaketa. Gazteleraz. Gai librea. 15 eta 25 poema bitarteko bildumak aurkeztu behar dira, gehienez, 30 orrialde. Saria: 200.000 pta. lanak aurkezteko epea: urriaren 27erarte.

Ikastaroak

• Espeleologia Ikastaroa Arrasaten. 4 igandetan. Azaroaren 10etik Abenduaren 2rarte. 16 urtetik gorakoentzat. Izena emateko epea: urriaren 19rarte. Doan (federatuta ez daudenek aseguru ordaindu beharko dute, 500 pta.).

Informazio gehiago:
Gazte Zerbitzuan,



77 00 65

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

M
ARENZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

FERRERIAS

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15

ARRASATE
PRESS

77 05 65

ETXEBIZITZAK

- **Gutziz berriztutako etxebizitza salgai.** 3 logela, egongela, jangela, hall-a, bainugela, hornitutako sukaldea, ganbara eta berotze sistema. Makatzena 15, 4 C. Tfnoa 79 49 49
- **Apartamentua alokatzen da** Laredon. Interesatuak 793147 tfnora deitu.
- **Alokatzeko etxebizitza bila** gabiltza. Dei egin 94-683 09 48 tfnora.
- **Etxebizitza saltzen dut San Andresen.** Zabalak, ikuspegi onekin. 4 logela eta egongela, 2 bainugela eta jarritako sukaldea. Igogailua, berokuntza, antena parabolikoa eta hari musikala. Interesatuak 79 51 09 tfnora deitu.
- **Hiru neska behar ditugu pisua osatzeko** Donostian. Tfnoak: 79 69 80 eta 79 50 28. 8etatik aurrera deitu.
- **Irakasle taldeak alokatzeko pisua** behar du Arrasaten edo inguruan (Aretxabaleta, Eskoriatza...). Tfnoa: 79 70 77. Aintzane edo Bego.
- **Donostiara ikastera doazen hiru neskek** beste neska ikasle batzuk behar dituzte elkarrekin bizitzeko. Deitu 79 50 45 Tfnoa. Mertxe.
- **Donostian (Antiguon) ikasle pisua** osatzeko neska hartuko genuke. Tfnoa: 79 32 10
- **Donostian pisua osatzeko neska** behar dugu. Tfnoa: 79 13 83
- **Lokala behar dugu** alokairuan (ez komertziala), bertan gure lana burutzeko. 50m² inguru. Berdin dio non eta nola dagoen. Tfnoak 79 21 09 eta 79 95 83.
- **Neska euskalduna behar dugu** pisua osatzeko Gasteizen. Tfnoa: 79 50 53.

LANA

- **Aretxabaletako Josteko Oihal denda** esperientzia duen jostuna behar du. Tfnoa: 79 80 90
- **Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta** umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 81 16.
- **Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta** umeak zainduko lituzke goizetan. Tfnoa: 79 22 58
- **Klase partikularrak emateko irakaslea** behar dut. tfnoa.: 79 03 37
- **"Umezaintza" haur-eskolak pertsona bat** behar du jangelarako eta arratsaldeko azkenengo orduetan umeekin egoteko. Ordegia: 11.30etatik 13.30ak arte eta 5.00etatik 6rak arte. Derrigorrezkoa euskara ondo menperatzea. Interesatuak deitu 79 01 02 telefonora.
- **Andra euskaldunak etxeko lanak egin edo** umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 07 73
- **Gustora hartuko nituzke** estatistikako klase partikularrak emateko. Prest bazaude, deitu tfnoa.: 79 51 47
- **Klase partikularrak ematen ditut.** Deitu 79 84 75era. Judit. Euskaraz edo erderaz emango ditut.
- **Neska gazte batek etxeko lanak eta** umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 15 56

SALEROSKETAK

- **Izozkailu espositorea** eta "Mikra" pixu elektronikoa salgai. Tfnoa: 78 04 06. Deitu goizetan.
- **Violoncello berri-berria salgai.** Interesatuak deitu 79 47 95 tfnora 8etatik aurrera.

- **Gibson itxura duen kitarra salgai.** Tfnoa: 79 88 81 Jose.
- **Seat Ritmo oso ondo zaindua salgai.** Probatzen uzten dut. Tfnoa: 79 25 19.
- **Anplifikadorea Rolan 60 Watiokao salgai.** Tfnoa: 79 29 86
- **Soalrium-a eta estetika aparailuak salgai.** Tfnoa: 75 24 66 Esther.
- **Fotokopiagailua salgai.** Sark SF 7400 markakoa. Tfnoa: 76 62 68
- **Peugeot 205 GT salgai.** Bost urte eta 85.000 km., egoera onean. Deitu 77 08 95 tfnora. ilunkaran hobeto.

DENETARIK

- **Gela konpartitu baten ohea alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Frantsesetik itzulpenak eta bestelako meka-** nografi lanak egiten ditut. Ana. Tfnoa 795676
- **Eraikitzeko lurra behar da Arrasate, Aramaio** edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 792586 tfnora
- **Datorren ikasturtean Madrilera joan beharra** daukat ikastera. Pisua konpartitu nahi nuke. Zuen: etxean tokirik badaukazue deitu lehenbailehen. Oihane. Tfnoa: 79 90 24 Aretxabaleta.
- **Txakurkumea doan ematen da.** Ez da arraza garbikoa, baina oso polita da. Tfnoa: 79 82 01
- **Astelehen goizean Donostiara joateko,** bi neska autoa duen norbaitekin elkartuko lirateke. Dei 79 13 83 Arrasate.
- **Kalxo Eibarko Leire.** Badakit zuen sinadura Jo ta fuego dala baina gehiago gustatzen zait Jo ta sua. Eta Kalejira ere ikusiko dut. Beno, agur eta hurrengo arte. Barkatu, ez nekien euskarazko irakaslea zinenik, Antxon.



ARRASATEN HILDAKOAK



Francisca Gomez Salguero,
irailaren 27an. 24 urte.

Manuel Arnaiza Bartolome,
27an. 73 urte.

Miren Iriondo Lete,
urriaren 1ean. 70 urte.

Clotilde Bikuña Beitia,
1ean. 76 urte.

Victoria Tena Gomez,
1ean. 78urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Rosarito Zeziaga

Zeziaga dendakoa

- Kafe-kafea ala deskafeinatua? Kafe-kafea.
- Musika klasikoa ala herri-musika? Klasikoa batez ere.
- Algodoia ala artilea? Algodoia.
- Tela, metrotan ala erretala? Metroka.
- Zeure arropa, eginda erosita ala etxean josita? Jostunak egina.
- Ohialak saltzeko, Maritxu Kajoi ala ihauteriak? Ihauteriak. Orain Maritxun jendeak ez du arropa egiten. Donostian eta Bilbon eginda erosten dute.
- Autobusa ala tren? Hemen autobusa, zer erremedio! Bidaia luzeetarako tren.
- Neguko arropa ala udakoa? Udakoa.
- Oporrak Arrasaten ala kanpoan? Arrasaten geratzen banaiz, lana besterik ez da izaten. Asia gustatzen zait, India bereziki.
- Lagunekin bazkaria ala afaria? Afaria.
- Denda txikia ala superdenda? Txikia. Handian mareatu egiten naiz. Arropa denda handia uniformeegia iruditzen zait.
- Bordatuak eskuz ala makinaz? Eskuz, baina zoritxarrez monjek ere utzi zioten lan hori egiteari.
- Makilatuta ala makilatu barik? Makilatu barik.
- Txanpaina ala patxarana? Bata ere ez. Ardo beltza bakarrik.
- Maritxu Kajoiko soinekoa ala baserritarrarena? Maritxukoa, imaginazioa ezarri behar zaie.
- Siesta ala goizean berandu jaikitzea? Gurago dut bazkalostekoa.
- Merienda ala hamarretakoa? Bata ere ez.
- Bezero zaharrak ala berriak? Biak oso garrantzitsuak.
- Marka ala kalitatea? Kalitatea, noski.



Zelebrekerixak

Beste askotan lez Fernando Plaentziarra berandu zoian etxera, barrutik majo bustitta, balantzatzko batzuk egiñaz. Ataiko atia giltzaz itxitta zeuan eta ahuan erdi erreta zeukan purua hartu eta sarraillan sartu eban giltzia zalakuan.

Jo batera eta jo bestera, baiña purumutxikiñak ateik zabaltzen ez. Etsi etsi egindda serenuai deitu zotsan.

– Zela zabaldukok pa astokillo -esan zotsan serenuak-, eztok ikusten giltziakin biharrian puruakin dihardukena, ala?

– Ene! -esan eban Fernandok ikarutata-. Edarra egin juat: giltzia erre purua zalakuan!

Pasau zan gau hartakua eta hurrengobatian be han zebillen Fernando atia zabaldu eziñik, orduan be karga dezentiaikin itxuria. Serenuak ikusi eta errukitu da:

– Ze Fernando, nahi dok atia zabaltzen laguntzia?

– Bai, giltzia zuluana sartu arte hik utsi atiai, geldi egon daiñ.



Kintzenia kobrau berri zeuan Fernando eta bazkari bapua egin eban. Kafiakin “Martel” kopia hartu eban. Kopa honek bost duro balio eban, Fernandon egun osoko jornala. Ixa atsalde erdixa kopia eskuan ebala pasau eban, Martelari tragotxuak juaz, oilluak ura eraten moduan.

Halako baten tripiari heldu eta aika eta oika hasi zan, barruko ufalari utsi eziñik. Alboko batek esan zotsan:

– Baiña Fernando, zer pasatzen jak?

– Hau dok txixaguria, mekaudies!

– Hor eztaukak pa komuna? Joan hari bixkor leluoi halakuoi.

– Ez, errekoño, ez. Behin Martel kopia bost duro pagau ezkeru, utsi ahal dan gurtia, mutillak!

Juan Martin Elexpuru

Felipe Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



1977


Ez dira urte asko pasa, baina herritar askori arrotz egingo zaio irudi hau ikustea. Maritxu Kajoi, Kajoi barik? Argazkia 1977koa da, eta ez omen zen denbora luzez egon Ama-birjina kajoirik gabe. On Jesus Zubillaga erretore zen garaian kendu zitzaion, kajoia erabat hondaturik eta itsusi zegoelako, nonbait; baina bi hilabete baino lehen berriz jarri ei

zen kajoia, herritarren aldetik, eta txikiteroen ahotan batez ere, protestak sortu zirelako.

Errosarioko Amabirjinak, horixe da eta guk *Maritxu Kajoi* izenez ezagutzen duguna, historia eta fama handia izan du. Joxe Mari Astigarraga parrokoak esan digunez, XVIII. mendean hedatu zen Errosarioko Ama herriko kaleetan jartzeko ohitura, eta ia Euskal Herriko herri guztietan dago, irudiren bat ez bada, izen hori daraman kalea. Bitxia omen da, hala ere, eliza baten atarian jartzea, *'beste inon ere ez du*

ikusi, normalki etxe baten kanpokaldean nitxoan sartuta egoten dira' esan digu erretoreak. Kontutan izan behar da, eta horrekin azalduko da, beharbada bitxikeria, kale horretan lehen herriko kanposantua zegoela, eta oraingo atea kanposantura begira zeudela.

1790eko dokumentu batzuetan honela ageri da: *'Hilerrri estalira begira dagoen Errosarioko Amabirjina'*. Gerora, elizarako ate nagusia izan zen. Gaur egun, berriz, atea itxita eta Maritxu Kajoiarekin.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Begi-flash



ENBIDOTik hartuta, ELKAR-en baimenarekin

**AXOLA
KLIMA**

- AIRE GIROTUA
- AIREZTAPENA
- BEROKUNTZA
- HOTZ-INDUSTRIALA

Tfnoak: (943) 79 90 75 eta (945) 45 54 45- 46

Hutsetik gatoz, tartean zerbait garela uste dugu eta berriz hutsera bueltatzen gara

Monotonian murgilduta zigarroa piztu nuen,
zigarroa piztu nuen egunerokotasuna apurtu nahiez
eta orduan,
eta orduan bakarrik,
jadanik apurtua zegoenaz ohartu nintzen...
zu joana zinen eta.

Baina bizitza aurrera doa eta
zure ausentzia ere monotonia bihurtu da,
orain erratzen dabilen imajina besterik ez zara,
ni egunen batean izango naizen bezala.

Letizia



**ASEGURU
ARTEKARIA**
Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

✓ **EGURALDIA ETBn.** Larunbata zen eta eguerdiko *Gaur Egun* ari nintzen ikusten. Eguraldia. Aurpeirik ez. Mapak ikaragarri aguro irakurtzen zuen -ez oso ondo, gainera- ahotsa. Kosta egiten zitzaidan esandakoari jarraitzea. Arrotza egiten zitzaidan esateko modua -*elarik*, eta berriro - *elarik* eta buelta -elatik-ekin. Hor igartzen da itzulpena dela (siendo los vientos... etab.)

Onerako edo txarrerako, TVEk ohitu egin gaitu eguraldia metereologo edo aurkezle batek azaltzera, munduan zehar ere horrela egiten bait da. Oso inpersonala egiten da ahots batek irakurtzen duenean eta gaizki irakurrita edo itzulpen usain gogorra badario testuari, eskas gelditzen da.

Arratsalde horretan Antena 3en arratsaldeko albistegia ikusi nuen. Eguraldia azaltzeko neska bat zegoen, eta nire harridurarako, azkarregi hitz egiten zuen. Zenbait momentutan zaila zen esandako guztia ulertzera. Ez da inor egongo neska horri astiroago berba egin dezala esango dionik?

✓ **DONOSTIAKO ZINEMALDIA.** ETBren bigarren kanalak zuzenean eskaini zuen larunbat arratsaldean Zinemaldiaren epaimahaiaren azken epaia, zinemaldiko prentsa aretotik. Gauza arraro asko egon zen han. Adibidez, zinemaldiaren arautegiak bost sari eman behar direla esaten badu, zertara dator aipatzea zuzendaritzak behartu egin zituela bost sari ematera, eurek lau baino eman nahi ez zituztenean? Kazetariak aho bete hortz gelditu ziren eta azalpenak eskatu zituztenean epaimahaiko ilustreek, ezetz.

Gaueko sari banaketan, berriz, ia sari guztiak banatu ondoren, agertokira igo eta berriro ere arratsaldeko ohar luzea irakurri zuten, banatu berri ziren sariak beste behin aipatuz. Gehiegi. Zinemaldiak berak, txarto gobernatutako oilotegia zirudien.

Gainontzekoaz ia enteratu ere ez naiz egin, ez bait diot kasurik egin. Dillon, Broderick, O'Tool, Lewis, Hemingway, etab. agertu direla bai, baina filmeez ezertxo ere ez.

Joxe Aranzabal

Gusto baduzu

Hau da A.U.

ETBko produkzio propioaren barruan, nobedade ugari denboraldi berriari begira. Elena Irureta, Kike Amonarriz eta Aizpea Goenagak, bere burua artistatzat daukatenei telebistan agertzeko aukera emango diete. Umorezko saio, eta ikusiko da zer nobedade dakarren. 21.20etan.


Hitzetik Hortzera

Aurreko urteko arrakastaren ondotik, berrikuntzekin dator-kigu bertsolaritzari buruzko programa, Bertsolari Elkarteak proposatu eta Joxerra Gartzia aurkeztua. Ikusentzuleek gaiak jarri ahal izango dituzte, bertsolaritzaren historia eta teknika-zen azalpenak emango dira, eta bertsolari ezezagunen berri ere emango da. Egun eta ordu aldaketa: 23.10ean.

Nire etxe baitan

Luis Alberto Aranbarri, Amatiñok gidaturik, programa berri honetan, egungo gaien inguruko elkarrizketak burutuko dira, eztabaidak, eta pertsonaia ezagunei egindako elkarrizketak. Astezkenean, gaueko 11tan.

Bideoak



Ben-Hur

Filmeak erromar inperioaren lehendabiziko urteetara garamatza, Augustoren eta ondorengo izan zuen Tiberioren agintaldietara. Epopeia baten ezaugarri guztiak filme baten bildurik.

Ostadar irratia

OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)

4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)


ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-liru-li* (Haur kantak)


OSTEGUNA

1 eta 8. *Irratia-gelan* (Gelako grabakletak)

OSTADAR Irratia. 102 FM



Badira bi aste Arrasate Telebista *Teletestua* ematen hasi zela. Arratsaldeko zazpitan eta goizeko hamaiketan, egunen arabera, hor duzue era guztietako informazioa: beharrezko telefonoak, autobusen ordutegia, etab. Denboraz sofisticatuz joango den zerbitzua **Iñaki Aranak** antolatzen du *Amiga 2.500* ordenadorean.



Konturatuko zineten *Mondrasport* saioak aurpegi berria duela denboraldi honetan. **Beñardo Kortabarria** da, Arrasate Presseko kazetari antzuolarra. Beti izan du gustoko kirola. Gaztetan txirrindularia izan zen eta astia duenean, egiten ditu ahaleginak bizikleta gainean.



Musikantoi programakoek, lehiaketa antolatu dute. Astero musikari buruzko galdera bat egin eta erantzunekin zozketa egingo da. Erantzunak *Eresi* edo *ATBn* ematen dituzten txartel batzuetan idatzi behar dira, eta zozketaren irabazleek diska bat eskuratuko dute. Saria jasotzeko jarri duten baldintza bakarra programara etortzea da. Animatu eta idatzi denok.

aste ko

PROGRAMAZIOA

8 ASTELEHENA

- 19.00 *Teletestua*: era guztietako informazio eta abisuekin.
- 20.00 *Berriak*, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 *Mondrasport*, Beñardo Kortabarriak zuzendua.
- 20.40 *Erreportaia*. Lehen Lana orain *Udala* Kooperatibari buruzkoa. *Berriak* (errepikaldia)

9 ASTEARTEA

- 11.00 *Teletestua*
- 12.00 *Berriak* (bezperakoa)
- 12.20 *Mondrasport* (bezperakoa)
- 12.40 *Erreportaia*. Lehen Lana orain *Udala* Kooperatibari buruzkoa. (bezperakoa)

10 ASTEAZKENA

- 19.00 *Teletestua*
- 20.00 *Berriak*, Koldo Rodriguezek aurkeztua
- 20.20 *Zenbat buru* hainbat aburu, Jose M. Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Petsiar Golkoko krisia. *Berriak* (errepikaldia)

11 OSTEGUNA

- 11.00 *Teletestua*
- 12.00 *Berriak* (bezperakoa)
- 12.20 *Zenbat buru*, hainbat aburu (bezperakoa)

OSTIRAL eta **LARUNBATEAN** ez da emisiorik izango.



OBRAK DIRELA ETA, ERDIKO KALEAN GAUDE

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

M MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa


Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Arazoren bat dela medio, atzera egin beharra suerta liteke. Akatsen bat egin izana onartu beharko duzu behar bada; ezizu gaizki hartu.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Arazo psikologikotzat hartuko duzu dena, hankaz gora ikusiko duzu ingurua horregatik. Inguruko guzietan laguntzen saiatu, horren truke ezer espero gabe.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Haserre bizian egongo zara, ez utzi besteek zure egoera ikus dezaten. Lana izango da benetan egin beharko duzuna. Ez ibili egimbarraren logika landu nahian, jo harira.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Ondo joango zaizu dena lan arloan dago-kionez, helburu guztiak aurrera atera ahal izango dituzulako. Besteekiko harremanetan komenigarria izango da leun jokatzea.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Zure irudimenaren ondorio baino ez diren ezbehar horiek ahaztu behar dituzu. Lan arloan arrakasta izango duzu. Halere derrepenteko humore aldaketa horiek abiatu, besteak ez bait dira zure irudikerien errudun.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Ingurua bare-bare egotea izan da benetan behar izango duzuna. Lasaitasuna, argitasuna bilatuz eta jatorra izanez lortuko duzu. Zorione-k bazaude, ez itsutu eta lagundu besteei.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Burua argi izango duzu eta berehala edozer ulertzeko gai izango zara. Halere helburu gabezia somatzen da eta alperrikakoak izan litezke energia horiek.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Helburu asko pilatu dituzu eta nahaste berraste handia izango. Banan banan atera itzazu aurrera. Bizi-bizi sentituko zara eta mundu guztiarekin haremanak izateko irrikan. Lasaia-go hartu bizimodua.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Bizimodua berrantolatu beharrean zaude, ez ibili ezinezkoa dena lortu nahian. Halaber ez izan mesfidatia lagunekin eta kontuan hartu emango dizkizuten aholduak. Itxura zaintzea komenigarri izango da lan berri horretan.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Sekulako sentiberatasuna eta kapazitatea somatuko dituzu. Harro egongo zara zeure buruarekin pertsona zein intelektual mailan daukazun dena emango duzulako.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Oraingoa ez da erosketara eta akordio arriskuak burutzeko unerik aproposena Skorpio. Barruko pakea sortzen saiatu zaitez lehenengo eta hortik aurrera, komeni zaizkizun erabakiak hartu. Ahul sentituko zara.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra


Gehiegizko erromantizismoak lur jota utz zaitzake, lanerako gogo faltak berriz lan tokio giroa nahastu. Ez eman aholkurik, ezta hartu ere. Zuhurra izan zaitez hitzegiterakoan, gaizkiulertuak egon daitezke eta.



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79-24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

iKER

xey



SUKALDE-ERAKUSKETA:
Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE

MUGARRI

Berri-berriak



Escort



Orion



Ford modelo berriak